

Zentinelak ez daitezela lokartu

Diotenez, HELEPi buruz Hautesien Kontseiluak Baionan berriki burutu ekitaldian, ez omen zen euskaraz hitzik ere entzun, euskaldun anitz han berean zirenean. Nihaur ez nintzen han, bizkitartean ez nau batere harritzen, zoritxarrez.

Zenbakien argira, Herri Elkargoa sortuko da. Hasteko, aldarrikapen historikoari erantzunen zaio, eta hortik bide batzuk posibleak bihurtuko ditu, lurraldea kudeatzekoak; bertakoek erabaki politika garatu ahalko dute, eta Iparraldearen izenean mintzatu.

Harago, deus gutxi beraz. HELEP oraino proiektu lausoa delako, konpetentzia anitz kudeatu beharko dituelako, batzuk premia handikoak (fiskalitatea, lurralde antolaketa, arlo ekonomiko eta sozialak) besteak opzioak. Luze joko du euskarari doakion puntua tratatua izan aitzin eta auskalo nola.

Etorkizuna ezin iragarria da baina gezurra litzateke pentsatzea Elkargoak euskaldunei leku hobea eman diela, horretara joatea, inguratzeko gaituzten deabru guztiak ez balira bezala jokatzea. Inkontzientzia litzateke pentsatzea hizkuntzen arteko kohabitazio pazifiko elkar aberasgarria dela sortuko, bat-batean, menpekotasun egoera glotofagiakoa haizaturik.


Ez omen zuten euskaraz egin HELEPi buruzko aurkezpen saioan. Hainbat gaixto. Zoritxarrez, gure iragan hurbilari eta gure esperientziei beha, gisa bereko adibideak ez dira falta, frogatzeko borondatea egon den lekuetan ere, egoerak ez direla gure itxaropenen heinekoak gertatu. HELEPen defendatzaile sutsu, Baterako kide, abertzaleen bozekin hautatua izan den Etxegarai Baionako auzapeza boterean denetik, zer da konkretuki eta iraunkorki aldatu dena Baionan euskarari doakionez? Euskal Kulturaren plazaratzearen aldetik? Ez dut kanbiamenik sentitu. Biarritzen?



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

Euskararen biziberritzerako pausoak molde koherente eta antolatuagoan eman ziren, baina euskararen egoeraren aldaketa nabarmenik eragin al du? Hego Lapurdin, Hendaian, hizkuntza gutxituen topaketa antolatu zenean, euskalgintzako kideak frantsesez mintzarazi ziren. Eta, gehiago dena, azken horiek zepoan erori. Egunero, dela herriko etxean, dela administrazioko edozein bulegotan sartzean, sekulako buruko minak pizten zaizkit ezin identifikatuz non eta zeini euskaraz egin diezaiokedan, eta egun txarra dudanean, erdaraz egiten dut, daitort.

Hots, azken urteetan, euskal jendar-tearen mobilizazio eta kanpainak, erakundeetako erabaki, plangintza eta ele ederrak ez dira faltan izan eta hauen ondorioak ez dira begi-bistakoak, anitzetan itxurakeria eta zuritzearen kutsua ere badute. Gainera, maiz, euskaldunok, higaduraz, lotsaz, auskalo, uzten diogu horri gertatzen. Etengabeko ukoa eta gutxiespenaren aitzinean, nekeziak bizitzearen bortxaz, gure zuziak ahultzen baitira, gure suak epeltzen, auto-zentsurak eta auto-lotsak ager baitzaizkiguke.

HELEP ala ez, zentinelak beti iratzarrik egon beharko du. Orain arte bezalatsu, ez baitu egiturak ekarriko aitorten linguistikorik, euskaltasuna ez baita egituraren erdigunean, areago eta harago, bailiteke oztopo bihur dadin. Oroz gainera, euskararen geroa ez baita frantses egitura administratibo baten gain, esperantzatan, utzi beharko sekulan. Hizkuntzaren etorkizuna herriaren eta hiztun bakoitzaren esku baita. Beti adi eta kritiko segitu beharko dute euskararen defendatzaileek, zentinelak lana egiten, animatzen, gizartea interpelatzeko eta mobilizatzen, baita euskaldunen komunitatea aktibatzen ere. Sekula ez bezala, engaiamendu pertsonala, inguruan eragitea eta aktibismo puntua beharrezkoak dira. ■